

## ZERGA ITUNDUEN BIDEZKO DIRU-BILKETA BIZKAIAN

2021EKO AZAROA

---

### I. ZENBATEKO OROKORRAK

#### a) Diru-bilketa likidoa, guztira

Azarora arte zerga itunduen bidez bildutako diru-kopuru metatua % 14,9 gehitu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta: 7.709,3 milioi euro bildu dira; 2020ko azarorako 6.709,8 milioi bildu ziren. Horrenbestez, 999,5 milioi gehiago bildu dira, eta ekitaldirako aurreikusitako guztirako zenbatekoa (7.341,6 milioi euro) gainditu da (% 105,0).

Aurreko txostenetan adierazi den bezala, urriaren 25eko 1778/2021 Foru Aginduak, zenbait zerga-eredu aurkezteko aldiaren mugaeguna aldatu zuenak, eduki duen eragina neutralizatu ondoren, emaitzen analisisan kontuan hartu behar da ekitaldi bietan ziurtatutako diru-bilketan agertzen diren zifrak ez direla homogeenak; izan ere, aurreko ekitaldian zein oraingoan pandemiak finantza egoeran eta zergadunengan sortutako eragin kaltegarriak arintzeko hartutako neurriek zerga sarreraren egutegiari zein bildutako zenbatekoei eragiten diete, noski.

RECAUDACIÓN ACUMULADA A FIN DE NOVIEMBRE				
en miles de euros	2021	2020	diferen.	%
Recaudación líquida	8.294.437,6	7.203.458,6	1.090.979,0	15,1
Total ajustes internos DDFF	-1.187.604,6	-922.385,9	-265.218,7	28,8
Tributos Concertados de Gestión Propia	7.106.833,0	6.281.072,6	825.760,3	13,1
Total ajustes con el Estado	602.443,3	428.709,7	173.733,5	40,5
<b>TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>	<b>7.709.276,2</b>	<b>6.709.782,4</b>	<b>999.493,8</b>	<b>14,9</b>
Porcentaje de ejecución	105,0%	82,4%		

Barneko doikuntzei dagokienez, adierazi beharra dago Bizkaiak 265,2 milioi euro gehiago ordaindu dizkiela beste lurralde historikoei, hau da, % 28,8 gehiago.



## b) Kudeaketa propioiko diru-bilketa gordina eta itzulketak

Kudeaketa propioiko zerga itunduen bidezko diru-bilketa gordina 9.549,9 milioi eurokoa izan da, aurreko urteko hil berean lortutakoa baino % 13,5 gehiago, orduan 8.410,8 milioi bildu ziren eta. Bestalde, itzulketak % 14,7 gehitu dira: iaz 2.129,7 milioi itzuli ziren eta aurreko 2.443,0 milioi. Bi egoera horiek batuta, kudeaketa propioaren bidez bildutako zenbateko likidoa % 13,1 gehitu da.

RECAUDACIÓN ACUMULADA A FIN DE NOVIEMBRE				
en miles de euros	2021	2020	diferen.	%
Recaudación bruta	9.549.856,3	8.410.820,8	1.139.035,4	13,5
Devoluciones	-2.443.023,3	-2.129.748,2	-313.275,1	14,7
<b>Tributos Concertados de Gestión Propia</b>	<b>7.106.833,0</b>	<b>6.281.072,6</b>	<b>825.760,3</b>	<b>13,1</b>

## II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko zergen bidez bildutako zenbateko likidoa %10,3 gehitu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta: 3.881,9 milioi euro. Izan ere, bildutako zenbateko gordina % 8,8 gehitu da, itzulketek % 2,0 egin dute behera. Zeharkako zergen bidez 3.172,2 milioi euro bildu dira, hau da, iaz baino % 16,8 gehiago. Hain zuzen ere, gora egin dute bai bildutako kopuru gordinak (% 17,9), bai itzulketek (% 19,6). Beste alde batetik, tasen eta beste diru-sarrera batzuen zenbatekoan % 12,6ko igoera gertatu da: aurreko ekitaldian 46,8 milioi bildu ziren eta oraingoan 52,7 milioi.

RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS NOVIEMBRE									
en miles de euros	Recaudación bruta			Devoluciones			Recaudación líquida		
	2021	2020	%	2021	2020	%	2021	2020	%
Impuestos Directos	4.355.264,6	4.002.447,8	8,8	473.352,3	483.038,4	-2,0	3.881.912,3	3.519.409,5	10,3
IRPF	3.418.929,1	3.067.380,4	11,5	436.952,4	438.617,2	-0,4	2.981.976,7	2.628.763,1	13,4
Impuesto sobre Sociedades	695.743,1	721.321,6	-3,5	21.094,0	25.045,7	-15,8	674.649,1	696.275,8	-3,1
Resto Impuestos Directos	240.592,4	213.745,9	12,6	15.305,9	19.375,4	-21,0	225.286,5	194.370,5	15,9
Impuestos Indirectos	5.139.328,4	4.359.892,9	17,9	1.967.141,6	1.645.058,7	19,6	3.172.186,8	2.714.834,2	16,8
IVA	3.552.132,8	2.982.243,5	19,1	770.007,5	713.003,3	8,0	2.782.125,3	2.269.240,1	22,6
IVA Ajuste Interno				730.345,3	532.785,9	37,1	-730.345,3	-532.785,9	-37,1
Impuestos Especiales	1.428.505,7	1.255.372,4	13,8	465.624,5	398.187,0	16,9	962.881,2	857.185,4	12,3
Resto Impuestos Indirectos	158.689,9	122.277,1	29,8	1.164,4	1.082,5	7,6	157.525,5	121.194,6	30,0
Tasas y Otros Ingresos	55.263,3	48.480,1	14,0	2.529,4	1.651,1	53,2	52.733,9	46.829,0	12,6
<b>TOTAL GESTIÓN PROPIA</b>	<b>9.549.856,3</b>	<b>8.410.820,8</b>	<b>13,5</b>	<b>2.443.023,3</b>	<b>2.129.748,2</b>	<b>14,7</b>	<b>7.106.833,0</b>	<b>6.281.072,6</b>	<b>13,1</b>
Ajustes con el Estado	828.455,6	654.624,7	26,6	226.012,4	225.914,9	0,0	602.443,3	428.709,7	40,5
Ajustes IVA	780.719,0	606.673,9	28,7	11.109,6	15.474,6	-28,2	769.609,4	591.199,2	30,2
Ajustes Impuestos Especiales	47.736,6	47.950,8	-0,4	214.902,8	210.440,3	2,1	-167.166,2	-162.489,5	-2,9
<b>TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>	<b>10.378.311,9</b>	<b>9.065.445,5</b>	<b>14,5</b>	<b>2.669.035,7</b>	<b>2.355.663,1</b>	<b>13,3</b>	<b>7.709.276,2</b>	<b>6.709.782,4</b>	<b>14,9</b>



#### a) PFEZa

PFEZaren bidez bildutako diru-kopuru likidoa aurreko urteko azarokoa baino % 13,4 gehiago izan da; izan ere, bildutako kopuru gordina % 11,5 gehitu da eta itzulketek behera egin dute: iaz 438,7 milioi eta aurrekoan 437,0 milioi (% 0,4 gutxiago).

Zerga honen osagai guztietan bilakaera positiboa izan da. Izan ere, gehikuntza izan da lanaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 5,3), kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 37,7), kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 4,7), ondare-irabazien gaineko atxikipenetan (% 34,0), lanbide-jardueren, enpresa-jardueren eta arte-jardueren ordainketa zatikatuetan (% 26,2), eta batez ere sarien gaineko karga berezian: aurtengo ekitaldian 30,0 milioi; aurrekoan, 3,0 milioi. Kuota diferentzian emaitza negatiboa egon da: 30,0 milioi. Aurreko urtekoa -169,6 milioikoa izan zen (kontuan eduki behar da iazko azarokoa artean sartu gabe zeudela errenta-aitorpen positiboen bigarren epeko kopuruak).

#### b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzian % 10,1eko murrizketa gertatu da, bildutako kopuru gordina % 10,5 txikiagoa izan baita: 528,2 milioi; aurreko urtean, 590,2 milioi. Itzulketen bolumena 19,5 milioi izan da, hau da, % 20,6 gutxiago. Aurreko epigrafean aipatutako zerga-figura guztiak kontuan hartuta, zerga honen bidez % 3,1 gutxiago bildu da: 2020ko azarora arte 696,3 milioi bildu ziren, eta ekitaldi honetan 674,6 milioi.

#### c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergen bidez % 15,9 gehiago bildu da: iazko azarora arte 194,4 milioi bildu ziren, eta aurtengo azarora arte 25,3 milioi bildu dira. Igoerak izan dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan (% 29,7), oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan (% 53,2) eta, txikiagoa izan bada ere, ondarearen gaineko zergan (% 0,8). Ostera, gutxiago bildu da kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zergaren bidez (% 4,1) eta, batez ere, energia elektrikoaren sorkuntzaren gaineko zergaren bidez; izan ere, zerga hori etenda gelditu da oraingo ekitaldiko hirugarren hiru hilekoan 6/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez (uztailaren 27koa, balio erantsiaren gaineko zergan eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan presako neurriak hartzekoa), eta ondorioz iaz 16,6 milioi euro bildu baziren, aurrekoan 10,5 milioi bildu dira, Araba eta Gipuzkoako aldundientzako doikuntza egin ondoren (5,1 milioi euro, aurreko ekitaldiko aldi berekoa baino % 17,0 gutxiago).

#### d) BEZ

BEZaren bidez % 22,6 bildu gehiago bildu da: aurreko ekitaldian 2.269,2 milioi euro bildu ziren, eta aurtengoan 2.782,1 milioi euro. Bilakaera positibo honen eragilea bildu den kopuru gordinaren gorakada izan da (% 19,1): aurrekoan 2.982,2 milioi euro izan ziren, eta aurtengoan 3.552,1 milioi euro (gehikuntzaren bi heren baino gehiago 2019ko ekitaldiko akta bakarren ezohiko diru-sarrerak dira); gainera, itzulketen gorakada murriztagoa izan da (% 8,0). Zerga honetan egindako barne doikuntzaren ondorioz % 37,5 gehitu dira



ordainketak (730,3 milioi eurora heldu da): Doikuntza horren ondorioz Arabak 197,2 milioi jaso ditu (% 5,1 gehiago) eta Gipuzkoak 533,1 milioi (% 54,5 gehiago).

#### e) Zerga bereziak

Zerga berezien bidez aurreko ekitaldian baino % 12,3 gehiago bildu da: bildutako kopuru gordina % 13,8 gehitu da, eta itzulketen zenbatekoa % 16,9. Bilketak behera egin du tarteko produktuen gaineko zergan (% 11,3 gutxiago), tabakogaien gaineko zergan (% 12,9 gutxiago), garagardoaren gaineko zergan (% 19,6 gutxiago) eta elektrizitatearen gaineko zergan (% 2,9), eta gora hidrokarburoen gaineko zergan (% 18,2 gehiago) eta alkoholaren gaineko zergan (% 26,8 gehiago). Zerga hauen barneko doikuntzak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiak 452,2 milioi euro ordaindu dizkie Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiei, aurreko ekitaldian baino % 17,9 gehiago. Arabako Foru Aldundiak 108,2 milioi jaso ditu (% 16,1 gehiago) eta Gipuzkoak 344,0 milioi (% 18,5 gehiago).

#### f) Zeharkako gainerako zergak

Zeharkako zergapetzearen gainerako figuren bidez % 30,0 gehiago bildu da guztira. Hain zuzen ere, gora egin dute ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak (% 31,7 eta %28,6 zerga-egitate bakoitzak), zenbait garraiobideren gaineko zergak (% 29,2), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergak (% 17,8) eta aseguru-sarien gaineko zergak (% 32,6); aitzitik, joko-jardueren gaineko zergak behera egin dute (% 13,8 gutxiago).

#### g) Tasak eta beste diru-sarrera batzuk

Jokoaren gaineko tasen bidez % 6,5 gehiago bildu da, batez ere makina eta aparatu automatikoetan (% 12,1) eta, gutxiago bada ere, txarteletan eta beste apustu batzuetan (% 6,5). Aldiz, bingo-jokoaren gaineko tasak beheraka jarraitzen du: % 28,9 gutxiago bildu da. III. kapituluko gainerako kontzeptuei dagokienez, gora egin dute premiamendu-errekarguek (% 4,9 gehiago), berandutze-interesek (% 11,7) eta zerga-zehapenek (% 38,7).

#### h) Estatuarekiko doikuntzak

Urriko txostenean azaldu zen bezala, BEZaren bidez bildutako diru-kopuruan Estatuarekin egindako doikuntzetan % 30,2ko igoera izan da azarora arte iazko bilketaren alderatuta. Izan ere, gora egin dute inportazioen doikuntzak (% 27,6) eta barruko eragiketen doikuntzak (% 35,2); nolahi ere, azken igoera hori % 15,3 baino ez litzateke izango ez balira kontuan hartuko BEZ MOSSaren 2015-2021eko ekaina aldiko erregulazioarengatik jasotako 40 milioi euroak.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien doikuntzen emaitza negatiboa are txarragoa izan da (% 2,9 gutxiago), batez ere % 4,7 gehitu direlako hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren kargapeko barruko eragiketen ordainketak eta gutxiago bildu delako alkoholaren gaineko zergaren kargapeko barruko eragiketetan (%4,2 gutxiago). Horren zati bat gehikuntza hauek konpentsatu dute: 4,7 milioi gehiago tabakogaien gaineko zergan (% 80,6) eta % 11,3 gehiago garagardoaren gaineko zergaren kargapeko barruko eragiketen doikuntzan.



**ZERGA ITUNDUEN BIDEZ BILDUTAKOIA.** Aurreko ekitaldiarekiko konp.  
**RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS.** Comparación ej. anterior

**2021**

Aldiak: urtarrila-azaroa  
 Periodos: enero-noviembre

( euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2021	2020				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	2.748.593.368	2.611.158.383	137.434.985	5,3	2.780.000.000	98,9
ATXIKIPENAK: CAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	93.467.499	67.880.413	25.587.086	37,7	68.000.000	137,5
ATXIKIPENAK: CAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	41.699.986	39.838.635	1.861.352	4,7	41.000.000	101,7
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	30.814.151	22.993.116	7.821.034	34,0	26.000.000	118,5
SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	29.993.150	3.042.250	26.950.901	885,9	25.000.000	120,0
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	67.448.273	53.442.649	14.005.624	26,2	50.000.000	134,9
PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-30.039.749	-169.592.305	139.552.556	82,3	-45.000.000	*
<b>PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.</b>	<b>2.981.976.677</b>	<b>2.628.763.140</b>	<b>353.213.537</b>	<b>13,4</b>	<b>2.945.000.000</b>	<b>101,3</b>
ATXIKIPENAK: CAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	93.467.453	67.880.372	25.587.081	37,7	68.000.000	137,5
ATXIKIPENAK: CAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	41.699.626	39.838.325	1.861.300	4,7	41.000.000	101,7
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	30.814.146	22.993.112	7.821.034	34,0	26.000.000	118,5
SOZJETATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	508.667.923	565.564.003	-56.896.080	-10,1	387.000.000	131,4
BALANTZE-EGUNERATZEA / ACTUALIZACIÓN DE BALANCES						
<b>SOZJETATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES</b>	<b>674.649.148</b>	<b>696.275.812</b>	<b>-21.626.664</b>	<b>-3,1</b>	<b>522.000.000</b>	<b>129,2</b>
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENTA NO RESIDENTES	36.380.338	28.051.364	8.328.974	29,7	18.500.000	196,7
OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	82.759.318	54.022.761	28.736.557	53,2	60.000.000	137,9
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	80.931.709	80.306.601	625.108	0,8	79.000.000	102,4
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO.S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	14.747.955	15.381.248	-633.294	-4,1	14.500.000	101,7
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	10.467.177	16.608.527	-6.141.350	-37,0	20.266.870	51,6
IRAUNGITAKO ZUZENENKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
<b>BESTELAKO ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>225.286.496</b>	<b>194.370.501</b>	<b>30.915.995</b>	<b>15,9</b>	<b>192.266.870</b>	<b>117,2</b>
<b>ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>3.881.912.321</b>	<b>3.519.409.453</b>	<b>362.502.868</b>	<b>10,3</b>	<b>3.659.266.870</b>	<b>106,1</b>
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	2.782.125.331	2.269.240.116	512.885.215	22,6	1.912.729.860	145,5
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-730.345.279	-532.785.918	-197.559.362	-37,1		*
ONDARE ESKUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	73.929.939	56.155.696	17.774.243	31,7	60.000.000	123,2
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS	18.341.924	14.260.456	4.081.467	28,6	18.000.000	101,9
GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO.S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	8.964.904	6.940.160	2.024.744	29,2	8.000.000	112,1
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IVA ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	1.639.074	1.293.148	345.926	26,8	1.729.976	94,7
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	56.608	63.810	-7.202	-11,3	130.754	43,3
HIDROKARBURUAK / HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	810.039.797	685.028.928	125.010.868	18,2	705.201.583	114,9
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-4.146	-65.332	61.187	93,7	65.377	*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	126.861.714	145.705.431	-18.843.717	-12,9	192.862.150	65,8
GARAGARDOA / CERVEZA	654.374	813.710	-159.336	-19,6	704.060	92,9
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	23.633.822	24.345.704	-711.882	-2,9	30.375.160	77,8
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO.S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-40.751	-94.463	53.713	56,9	-120.696	*
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	51.845.445	39.089.697	12.755.748	32,6	42.500.000	122,0
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMPTO.S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	3.331.876	3.865.224	-533.347	-13,8	3.400.000	98,0
BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO.S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	1.152.121	977.829	174.292	17,8	1.000.000	115,2
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>	<b>3.172.186.754</b>	<b>2.714.834.197</b>	<b>457.352.557</b>	<b>16,8</b>	<b>2.976.578.224</b>	<b>106,6</b>
JOKO TASAK / TASAS DE JUEGO						
BINGOA / BINGO	1.282.559	1.802.892	-520.334	-28,9	2.000.000	64,1
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	12.715.058	11.341.675	1.373.383	12,1	8.000.000	158,9
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	2.826.345	2.653.783	172.562	6,5	3.000.000	94,2
<b>JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO</b>	<b>16.823.962</b>	<b>15.798.351</b>	<b>1.025.611</b>	<b>6,5</b>	<b>13.000.000</b>	<b>129,4</b>
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE APREMIO	10.565.573	10.074.289	491.284	4,9	7.000.000	150,9
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	15.425.854	13.805.417	1.620.437	11,7	16.000.000	96,4
ZEHAPENAK / SANCIONES	9.918.505	7.150.933	2.767.573	38,7	10.000.000	99,2
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS</b>	<b>52.733.894</b>	<b>46.828.989</b>	<b>5.904.904</b>	<b>12,6</b>	<b>46.000.000</b>	<b>114,6</b>
<b>ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO</b>	<b>7.106.832.969</b>	<b>6.281.072.639</b>	<b>825.760.330</b>	<b>13,1</b>	<b>6.681.845.094</b>	<b>106,4</b>
BEZ: DOIKUNTZAK / AJUSTES IVA						
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	497.370.852	389.774.178	107.596.674	27,6	547.758.680	90,8
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	272.238.568	201.425.067	70.813.502	35,2	311.445.970	87,4
<b>BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.</b>	<b>769.609.420</b>	<b>591.199.244</b>	<b>178.410.176</b>	<b>30,2</b>	<b>859.204.650</b>	<b>89,6</b>
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES						
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	44.564	49.853	-5.289	-10,6	115.667	38,5
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	21.188.874	22.115.575	-926.702	-4,2	25.094.710	84,4
HIDROKARBUREN GIZ.B.DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	72.147	9.591	62.556	652,3	10.058	717,3
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-208.527.451	-199.240.099	-9.287.352	-4,7	-244.359.110	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	3.379	175.612	-172.233	-98,1		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	10.530.779	5.831.740	4.699.039	80,6	9.876.956	106,6
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	41.342	53.022	-11.680	-22,0	145.841	28,3
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.480.198	8.515.205	964.994	11,3	9.655.680	98,2
<b>ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES</b>	<b>-167.166.169</b>	<b>-162.489.501</b>	<b>-4.676.667</b>	<b>-2,9</b>	<b>-199.460.198</b>	<b>*</b>
<b>ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>	<b>7.709.276.220</b>	<b>6.709.782.382</b>	<b>999.493.838</b>	<b>14,9</b>	<b>7.341.589.546</b>	<b>105,0</b>

\* Garrantzi txikiko ratioa / Ratio no significativo